

6. GAIKO IRAKURGAIA (Gorrotxategi, 2013)

AKITANIERA

LABURPENA, ATALKA

- **AKITANIA**

1. AKITANIERA IZENA:

Garaiaren arabera, lurralde desberdinei aplikatzen zitzaien “Akitaniera” izena. Beraz, zer ulertzen zuten garai bakoitzean zela Akitaniera?

- 1.1 Lehena erabiltzen Julio Zesar: Akitania, Pirinioen, Garona ibaiaren, eta ozeano Atlantikoaren tarteko lurraldea.

- 1.2 Augusto Enperadoreak inperioaren antolakuntza administratiboa gauzatzeko, inperioa “probintzia” izendaturiko lurralde desberdinetan zatitu zuen. Hori horrela, Akitaniako lurraldeari, Garona eta Loira ibaien arteko 14 herri galiarrak erantsi zizkion. Beraz, hemendik aitzinera, Akitania izenpean, ordura arte baino lurralde askozaz zabalagoa zegoen. Zatiketa administratibo honek, Inperio Garai guztian iraun zuen.

- 1.3 Anarkia militarra eta germanioen inbasioen ondoren, Dioklezianok unitate administratibo berriak sortu zituen inperioan (*diocesis*). Honen ondorioz, Galia bi zatitan banatu zuen: *diocesis Galliana* eta *diocesis Viennensis*. Azken honetan zeuden Akitania lehena eta Akitania bigarrena. Sailkapen honen Behe Inperio guztian iraun zuen.

Akitania izena jada ez da Zesarrek izendaturiko lurraldearena (honek bertze izen bat hartua bai dauka), Garona eta Loira ibaien arteko baizik. Beraz, harrigarria da, izena lurralde zabalago batera hedatu izanaz gain, zonalde berriak izena bereganatu izana, lurralde erabat desberdinari erreferentzia egiten ziolarik.

- 1.4 Hurrengo aldaketa, Bisigodoak bigarren Akitanian ezarri zirenean eman zen. Hauek Erromako inperioarekiko independentzia handiagoa eskuratu zuten, horrela “Tolosako erreinua” sortuaz. Eta ondoren frankoen erregeak kanporatuak izan ziren.

Badirudi, V. mendean zehar, baskoiak iparraldeko (frankoak) zein hegoaldeko (bisigodoak) botereenganako, geroz eta independentzia handiagoa zeukatela, eta beraz, arrisku handia bihurtu ziren auzoko herrientzat. Hori dela eta, garai honetan, baskoien kontrako lehen eraso eta espedizioak hasi ziren.

2. MUGA GEOGRAFIKOAK:

Akitaniarren Akitaniako mugak (antzinatekoak), nahiko ongi ezagutze dira: Pirinioetako mendietatik, Garona ibaiaren ertzetaraino (nahiz errekaen mugekin erabat bat ez egin).

Hegoaldean, Pirinioetako mendi-lerroak, Tarragonako Hispaniarekin (*hispania tarraconense*) muga ezartzeko balio zuen. Hau zonalde desberdinetan bana zitekeen: Pirinioetako haranak eta Akitaniako zelaiak (*Armagnac; Chalosse, Beárn, Pais Vasco; landak*).

3. DESKRIBAPEN LINGUISTIKOA

Aztertzen ari garen eremu geografiko ia guztian gaskoietaz hitz egiten da gaur egun, okzitaniarako dialektoa dena (gainerako hizkuntza okzitaniarretatik arras desberdina). Eta, deskribaturiko eremuaren alderdi hego-mendebaldeko hizkuntza euskara da.

Iraganeko Akitania etnografikoko muga geografikoek eta gaskoierako muga linguistikoen bat egiteak, bi fenomenoak erlazionatzea ahalbidetzen du, horrela egoera modernoa, iraganekoaren ondorio gisa ulertzeko aukera emanez.

• AKITANIARRAK ETA BEREN HIZKUNTZA

1. Iraganean, Akitania, elkarren artean harremana zeukaten zenbait herrik osatzen zuten nazio baten gisa ulertzen zen. Zesarrek erraterako, Galia hiru naziotan zatitu zuen: zelten lurraldea, galiarren lurralde eta Akitania.

Zesar eta Estrabonen lekukotasunek erakusten dutenez, akitanianarrak zerabilten hizkuntzagatik desberdinak zireneko ideia, nahiko zabalduko zegoen.

2. Akitanianarrek, Galiako probintziaren baitan, zeukaten nolabaiteko autonomiaz hitz egiteko dauzkagun zeharkako usteak oso gutxi dira. Hasteko, badirudi Akitania eta penintsula iberiarraren iparraldeko erreinuen artean nolabaiteko harremana bazegoen arren, ez zela berdin gertatzen herri galiarrekin zeukaten harremanarekin: badirudi ez zutela batera zergarik ordaintzen, Akitanianarrek goi-inperioan batzar probintzial propioa zeukatela, etab.

• DOKUMENTU LINGUISTIKOAK

1. EZAUGARRI OROKORRAK.

Iraganean Akitanian hitz egiten ziren hizkuntzei buruz dakiguna, modu desberdinetan (harrietan, txanponetan...) eskuraturiko inskripzioei esker dakigu gehienbat. Hauek arras garrantzitsuak dira: edukiari dagokionez, inskripzioen datari dagokionez, eta baita eremu geografikoari dagokionez ere (topaturiko lekuak, iraganen Akitanianaren hedadura norainokoa zen salatzen baitu). Hala ere, badira bertzelako datuak ere, iraganeko lanetan (gure kasuan latinez eta grekoz idatzirikoetan) transmititurikoak hain zuzen ere. Normalean beren latinezko edo grezierazko ordainak dituzten hitz soilak izan ohi dira.

Honetaz gain, inskripzioen ezaugarriek (materiala, alfabetoa...) informazio garrantzitsua eskaintzen dute. Iraganeko Europa mendebaldeko hizkuntzen eta alfabetoen arteko harremana orokorrean bi motetan sailkatu daiteke: beti alfabeto bati atxikitzen zitzaizkien hizkuntzak eta idazkera sistema bat baino gehiagotan idatzi diren hizkuntzak.

Hala ere, alfabetoaren erabilerak, harreman zuzena erakusten du elementu historiko eta kulturekin. Tradizio idatzi handiko hizkuntzek normalean harreman estua izan ohi zuten alfabeto batekin, tradizio idatzirik gabekoek egoera historiko bakoitzak eskaintzen zion alfabetora jotzen zuten bitartean. Honekin amaitzeko bada honi loturiko ikuskera negatibo bat ere: zenbait lekutan soilik bertako hizkera kultuan idatzi zitekeeneko ustea zabaldurik zegoen.

2. AKITANIERAKO TESTUAK: Akitaniako dokumentu linguistikoak bi multzotan banatu daitezke:

2.1 Iberiar idazkeran eginekoak: inportaturiko objektuetan eginekoak dira, eta beraz, Akitaniako alderdi kultural eta hizkuntzatik urrun kokatu ohi dira. Hauek zilarrezko zenbait txanpon, hilobiko zenbait inskripzio eta zilarrezko bi kopatan ikus ditzakegu.

2.2 Latindar alfabetoan idatzirikoak. Latinez, idatzirikoak dira, eta beraz, ez dago idazkera batean ere, akitaniarren hizkuntzaren erakusgarri den lekukotasun zuzen bakar bat ere. Beraz, hizkuntza ez dokumentatu bat dela erran dezakegu. Hala ere existitu zela ziurtasun osoz baliatu dezakegu, zenbait autoreren lekukotasunek (Zesar...) eta izen berezi zenbaitek erakusten dutenez. Azken hauek, latinez akitaniar lurretan egineko inskripzio zenbaitengatik dira ezagunak. Lekukotasun hauek, zehatz datatu gabeak dira eta soilik harrietan (normalean marmola) eginekoak dira (ez brontzean, ez berunean...). Lekukotasun gehienak, Garonan, Pirinioetako zenbait haranetan (*Luchon*) eta Aure zein Salat bailaretan aurkitu dira.

Edukiei dagokionez, lekukotasun hauek, epitafioak eta jainkoei egindako dedikazioak izan ohi dira.

Interes kultural eta historikoaz gain, interes linguistiko handia daukate inskripzio hauek, izen berezi ugari bai dakartzate, eta ondoko lurraldeekiko desberdintasun nabariak eta hainbat atzizkiren erabilera agerian uzten bai dituzte.

2.3 Tradizio idatzian transmitituriko datuen artean, zenbait lurralderen izen bereziak azpimarratu ditzakegu (historiadore zein geografoen lanetatik hartuak).

- **AKITANIAR HIZKUTZAREN ZABALKUNDE ETA MUGAK**

1. IPARRALDEKO ETA EKIALDEKO GALIARRAK

Mediterraneoko kostatik gertuen dauden herriak testu klasikoetan oso goiz agertu ziren, barrualdekoagoak berriz, erromatarren konkistarekin batera agertu ziren. Bertako zenbait onomastikak, herri galiarrera garamatzate zuzenean.

2. ONOMASTIKAREN BANAKETA GEOGRAFIKOA: akitaniarra Vs. galiarra

Izen akitaniarren presentzia igo egiten da, Pirinioetara hurbiltzen garen heinean, onomastika zeltiarraren lekukotasun garbienak berriz, Garona ibaiaren ertzean aurkitzen dira.

Ekialdeak, Akitania inguratzen du, eta inguruko herri galiarrekiko muga ezartzeko balio du, eta hau aberatsa da lekukotasunei dagokionez. Mendebaldeak berriz, Akitania erditik gurutzatzen du, bi zatitan banatuaz, eta inskripzio bakan batzuk bertzerik ez ditu utzi. Desberdintasun honen, kultur maila desberdin bat islatu dezake, eta baita alderdi orientalak herri zeltetatik jasotzen zuen eragina ere.

Beraz, lurraldea geroz eta mendebalderagokoa izan, orduan eta eragin zeltiar txikiagoa jasan du eta ondorioz, erromanizazioa ere azalekoagoa izan da. Hori horrela ondorio batera heldu gaitezke: akitaniarren presentzia handiena (*mayor grado de aquitanidad*) mendietako zonaldean zegoen, eta kohesioa handiagoa zen egungo Euskal Herrira gerturatu ahala.

3. HEGOALDEKO MUGAK: mugak ez dira hain garbiak.

• HIZKUNTZAREN DESKRIBAPENA

Hizkuntza natural ooren ezaugarria da, honek enuntziatu konkretuak sortzeko dauzkan baliabide mugagabeak. Baina hizkuntza hilek, jada corpus mugatu bat eskaintzen dute. Hori horrela, testuek euskarri oso garrantzitsu bat eskaintzen dute, hauetatik abiatuta, idazkeraren azpian ezkutatzen dena azaleratu bai dezakegu: erabilitako sistema, letren erabilera... Eta horrela, gutxi gora beherako errepresentazio foniko batera heldu gaitezke. Hala ere, hizkuntza guztiek ez dute corpus idatzi bera eskaintzen. Anitzetan testu hauen azterketak oztopo handi bat izan ohi du: testua ez ulertzea. Hori dela eta, lan honi ekin aurretik beharrezko den ezagutzak berebiziko garrantzia du.

Arazo hau erraterako iberikoarena da, ez baitago genetikoki harremana duen hizkuntza batekin ere konparatzerik, eta beraz oraindik ez da hau deskribatzea lortu.

Akitaniarraren kasua okerragoa da oraindik, dauzkagun lekukotasunak zenbait izen propietara mugatzen bai dira (testurik ez). Beraz, hauetatik ahalik eta informazio gehien eskuratzea beharrezkoa da. Baina posible da izen bereizi batzuetatik abiatu hizkuntza bat deskribatzea? Izen hauetatik ugari, hiztegiko izen arruntetan oinarrituta daude eta

denek hizkuntzako estrukturarekin erregela orokor batzuk betetzen dituzte. Horrela, beren jatorriko hizkuntzaren zenbait ezaugarri konkretu deskribatzea ahalbidetzen dutelarik.

Izen berezien ezaugarri nagusia zentzu propiorik ez izatea, eta identifikatzeko funtzioa betetzea izaki, elementu segmentalen konbinazioa beharrezkoa da, izen hauek ulertzeko garaian. Beraz, eratorpeneko elementu batzuk zein diren gutxienez, aztertu ahalko dugu: atzizkien erabilera, hizkuntzaren fonemak, kategoria gramatikalak, etab. Ondorioz, izen berezi hauek, ezaugarri tipologiko batzuk agerian uzten dituzten arren, oso gutxi da hizkuntzaren sintaxi ezaugarriei buruz ematen diguten informazioa.

Izenak modu egokian azaltzeko, ezinbestekoa da etimologiaren irizpideak aplikatzea, eta ondoren itzulpena ere egin dezakegu. Izen berezien itzulpenak (adibidez gaur egun: Donostia- San Sebastian) zonalde elebidun guztietan eman izan dira, eta baita Akitanian ere. Honen adibide, akitanierako *Belex*.

Hala ere aipatu behar da zenbait hitzen etimologia aurkitu bada ere, oraindik ugari direla etimologia ezezagunekoak.